

Gronholm metodoa

Jordi Galceran

Euskaratzea: Julia Marin

Obra hau 2008ko otsailaren 7an estreinatu da,
Donostiako Antzoki Zaharrean.

Talde ekoizlea: Txalo produkzioak
Zuzendaria: Carlos Zabala

Aktoreak:
Fernando: Asier Hormaza
Enrique: Ramon Agirre
Carlos: Joseba Apaolaza
Begoña: Itziar Ituño

Enpresa baten batzar gela. Leihoetatik eraikin altuak ikusten dira. Altzariak: bi eserlekuko sofa bat eta beste bat eserleku bakarrekoa. Eskuinaldean, ate bat. Atearen alboan, postontzi bat.

Aulkietako batean Fernando Diaz dago eserita, hogeita hemezortzi bat urteko gizona. Erakargarria. Traje dotore eta modernoa. Haren ondoan, lurrean, exekutibo maletín bat.

Segundo batzuen buruan, Fernandok erlojuari begiratzen dio, maletinetik "Marca" egunkaria atera eta gainetik irakurtzen hasten da.

Mugikor batek jotzen du. Fernandok patrikatik atera eta erantzun egiten du.

FERNANDO:

Bai? Kaixo, Luis. Hemen nauk, bai. Dentistaren zain.

Atetik, Enrique Tolaretxipi sartzen da. Fernandok ez du ikusten, antza denez.

Ostia, afaltzera, gaur gauean? Eta zergatik hartu duk konpromisoa niri ezer esan gabe? Bidali katalan horiek popatik hartzera joateko. Potrotaraino nagok memelo horien aurrean prakak jaitsi beharraz.

ENRIQUE (Larri):

Arratsalde on.

Fernandok Enrique ikusten du.

FERNANDO:

Luis, utzi egingo haut.

Fernandok mugikorra gordetzen du. Enrique berrogei bat urteko gizon potoloa da. Berak ere trajea dauka, baina ez da Fernandorena bezain modernoa. Exekutibo maletina darama eskuan, Fernandorena baino higatuagoa.

FERNANDO:

Arratsalde on, bai.

ENRIQUE:

Elkarrizketa hemen dela esan didate.

FERNANDO:

Hemen da, bai.

ENRIQUE:

Enrique Tolaretxipi. Urte askotarako.

FERNANDO:

Fernando Diaz.

Eskua ematen diote elkarri. Segundo batzuetako isilunea.

ENRIQUE:
Zu enpresakoa zara, ezta?

FERNANDO:
Ez. Hautagaia naiz.

ENRIQUE:
Baita ni ere. Zerbait esan dizute?

FERNANDO:
Ez.

ENRIQUE:
Bitxia hau dena, ezta? Teknika modernoak.

FERNANDO:
Bai.

ENRIQUE:
Lana proposatu zidatenean... Ez dakit. Zenbat gara, gu biok?

FERNANDO:
Ez dakit. Hiru eserleku daude.

ENRIQUE:
Elkarrizketa taldeka egite hau pixka bat... Originala behintzat bada. Eta zer esanik ez maila honetako lanpostu baterako izanda. Normalean, konfidentzialagoa izaten da dena. Nik hiru elkarrizketa egin ditut dagoeneko. Ez dakit zer gehiago jakin nahi duten nitaz. Zuk zenbat egin dituzu?

FERNANDO:
Hiru.

ENRIQUE:
Kontxo. Baita nik ere.

Enriquek karamelu kaxa bat ateratzen du.

Mentolin bat?

FERNANDO:
Ez, eskerrik asko.

ENRIQUE:
Nik ez nuen esperantza handirik honaino iristeko. Enpresa txiki batetik nator.

FERNANDO:
Enpresa enpresa da beti.

ENRIQUE:

Bai, hori bai. Baina nik ez dut sekula multinazional batean lan egin. Zuk bai?

FERNANDO:

Nik toki askotan lan egin dut.

ENRIQUE:

A. Baldintzak ikusgarriak dira. Soldata behintzat. Ez dakit zenbat irabazten duzun zuk, baina niretzat oraingoa halako bi litzateke ia.

FERNANDO:

Nik dezente irabazten dut.

ENRIQUE:

Berandu iristeko beldur nintzen. Batzuetan, horrelako huskeriak... Nik ere kontratatu izan dut jendea, eta detaile txikiei erreparatu izan diet beti erabakia hartzeko orduan: janzkera, bostekoa emateko modua... Eta autoa. Aukera baldin badaukat, autoraino laguntzen diet beti. Autoak informazio asko ematen du jabeari buruz. Autoak hitz egin egiten du. Ikusita nago behin baino gehiagotan: tipoa, txukun-txukun; eta autoa, zerri-zerri. Zuk ze auto...?

FERNANDO:

Lasai. Ez zara berandu iritsi.

Atetik Begoña Iribar eta Carlos Telleria sartzen dira. Hogeita hamar urte ingurukoak. Begoñak traje dotorea darama. Carlosek, berriz, arropa informalagoa: sport prakak eta jaka, gorbatarik gabe. Belarritakoa dauka belarri batean.

CARLOS:

Kaixo.

BEGOÑA:

Kaixo.

ENRIQUE:

Kaixo.

CARLOS (*Begoñari*):

Eseri, eseri.

BEGOÑA:

Ez, eseri zu.

CARLOS:

Faborez.

BEGOÑA:

(*Iribarrez*) Zergatik? Emakumea naizelako?

CARLOS:
Bai, emakumea zarelako.

BEGOÑA:
Zu baboa zara?

CARLOS (*Keinuz*):
(Bale.)

BEGOÑA:
Konforme, eseri egingo naiz. Baina ez emakumea naizelako.

Denek bostekoa ematen diote elkarri nork bere burua aurkeztuz.

CARLOS (*Enriqueri*):
Carlos Telleria.

ENRIQUE:
Enrique Tolaretxipi.

BEGOÑA (*Enriqueri*):
Begoña Iribar.

ENRIQUE:
Enrique Tolaretxipi.

CARLOS (*Fernandori*):
Carlos Telleria.

FERNANDO:
Fernando Diaz.

ENRIQUE (*Fernandori, hurbildu gabe*):
Enrique Tolaretxipi.

CARLOS:
Zuek egingo diguzue elkarrizketa?

ENRIQUE:
Ez, ez, gu ere elkarrizketa egitera etorri gara.

CARLOS:
Biak? Gu ere bai.

BEGOÑA:
Orduan, nork egingo digu elkarrizketa?

ENRIQUE:
Ez dakigu oraindik.

BEGOÑA:
Betikoa. Hiru gizon eta emakume bakarra.

CARLOS:
Ehuneko hogeita bost. Politikoki zuzena.

BEGOÑA:
Zu bai xelebrea. Sentitzen dut, baina politikoki zuzena ehuneko berrogeita hamar da.

CARLOS:
Noiztik?

BEGOÑA:
Mundua borobila denetik.

ENRIQUE:
Ezagutzen duzue elkar?

CARLOS:
Elkarrekin estudiatu genuen.

BEGOÑA:
Bueno, nik zertxobait gehiago estudiatu nuen berak baino.

CARLOS:
"Mari Bikaiñas" esaten genion.

ENRIQUE (*Enrique barrez*):
Ona.

CARLOS:
Honekin jai dugu.

BEGOÑA:
Lauroi batera egin behar digute elkarrizketa?

CARLOS:
Hala esan didate niri: elkarrizketa bakarra, hautagai guztiekin.

Etenaldia. Elkarri begiratzen diote.

ENRIQUE:
Autoz etorri zarete?

FERNANDO (*Egunkaria hartuz*):
Jode!

CARLOS:
Ni bai.

ENRIQUE:
Sekulako trafikoa, ezta?

CARLOS:
Egunero bezala.

ENRIQUE:
Eskerrak parkina daukaten, bestela...

CARLOS:
Bai, hemen ezinezkoa da aparkatzea.

ENRIQUE (*Fernandori*):
Zuk non aparkatu duzu?

Alboko hormetako batean ate txiki bat zabaltzen da. Goitik behera ireki da, laurogeita hamar gradutan geratu arte. Postontzi itxura dauka. Orain artean disimulaturik geratu da horman.

BEGOÑA:
Zer da hori?

Isilune txikia.

CARLOS:
Begiratu zer den.

Begoñak begiratu egiten du. Postontzia itxi egiten da.

BEGOÑA:
Kartazal bat.
Hara bestea. (*Carlosek eserlekua kendu baitio*)

CARLOS:
Zerbait jartzen du?

BEGOÑA:
Ez. Zabalduko dut?

FERNANDO:
Ez dakit. Nahi baduzu, utzi lurrean, beharbada bera bakarrik zabalduko da.

ENRIQUE (*Barrez*):
Ona.

Begoñak kartazala zabaltzen du.

BEGOÑA:

(*Irakurriz*) “Arratsalde on eta ongi etorri guztiok. Aurreratu genizuen bezala, hau hautaketa prozesuaren azken fasea da salmenta zuzendariaren lanpostua lortzeko Dekia enpresan. Zuek zarete azken hautagaiak. Badakigu proba hau ez dela ohikoa. Suediako gure zentralak ezarritako protokoloa jarraitzen ari gara. Uneren batean sentitzen baduzue proposamenen bat ez dela onargarria, bertan behera utzi dezakezue prozesua. Atea zabalik dago.”

(*Carlos*) Carlos, mesedez, begiratuko duzu ea egia den? (*Eserlekua kentzen dio Carlosi*)

CARLOS:

Hara bestea.

BEGOÑA:

“Baina behin areto honetatik irtenez gero edozein arrazoi dela eta, ulertuko dugu uko egiten diozuela lanpostuari. Hau da lehenengo proba. Esan dizuegu zuek zaretela azken hautagaiak, baina laurak ez zarete hautagaiak. Hiru baizik ez dira benetakoak.”

CARLOS:

Ostia!

BEGOÑA:

“Zuetako bat gure enpresako kidea da.”

DENAK (*Elkarri begira*):

Joder!

BEGOÑA:

“Zuetako zein ez den benetako hautagaia asmatu behar duzue. Hamar minutu dituzue.”

CARLOS:

Joder!

ENRIQUE:

Egon, egon. Orduan, gutako bat...

CARLOS:

Bai, oso argi dago.

BEGOÑA:

Eta asmatu behar dugu nor den.

FERNANDO:

Nik uste nuen elkarrizketa izango zela.

ENRIQUE:

Beraz, hemen bada hautagai bat hautagai ez dena. Eta guk nor den deskubritu behar dugu. Ona!

FERNANDO:

Ona?

ENRIQUE:

Proba. Gezurretan nor ari den deskubritzea. Etorri garenean, denok pentsatu dugu berdinak ginela, hautagaiak ginela denok, eta bai zera. Gutako bat... ez da erreala.

Etenaldia. Elkarri begiratzen diote laurok.

FERNANDO:

Zer? Niri ez begiratu. Edozein izan daiteke.

ENRIQUE:

Bai, bai, noski. Hamar minutu dauzkagu. Errazagoa izaten da benetakoak baztertzea satorra nor den deskubritzea baino.

FERNANDO:

(Ironiko) Satorra. Kontua ez da satorra nor den deskubritzea, baizik eta gainerakoek huts egin dezaten lortzea. Ze, eman dezagun hirurok asmatzen dugula zein den satorra, esango didazu orduan zertarako balio duen proba honek.

ENRIQUE:

Paperak esaten zuen hautagai faltsua nor den deskubritu behar dugula. Ez zuen esaten elkarren artean lehiatu behar dugunik.

FERNANDO:

Hiru gara eta lanpostu bakarra dago. Lehiatzen ari gara sartu garetik. Eta bi hauek elkar ezagutzen dute.

BEGOÑA:

Bueno, nik ez dut Carlos ikusi azkeneko afaritik. Duela bizpahiru urte.

CARLOS:

Hiru.

BEGOÑA:

Egia. Eta orduan farmazia laborategi batean egiten zuen lan.

CARLOS:

Eta han jarraitzen dut.

BEGOÑA:

Egia da. Zure lankide batekin topo egin nuen lehengoan eta hala esan zidan. Beraz, ezinezkoa da bera izatea.

CARLOS:

Eta zu, Begoña, aholkularitza enpresa batean ari zinen. Baina ez naiz gogoratzen zein zen.

BEGOÑA:

ICR.

CARLOS:

Han jarraitzen duzu?

BEGOÑA:

Ez, orain banku batean nabil. Izena ez dizuet esango, axola ez bazaizue.

FERNANDO:

Alferrik ari gara. Bi hauek elkar ezagutzen dute. Biak aritu daitezke gezurretan. Bietako bat baldin bada satorra, gezurra esan du, eta besteak ez digu ezer esango badakielako bestea dela satorra.

ENRIQUE:

Ostia, hau korapiloa!

FERNANDO:

Hauek esan digute ze lanetan dabiltzan, guk sinistu edo ez. Orain guk azalduko dugu zertan lan egiten dugun, eta horrela egoera berean egongo gara laurok.

ENRIQUE:

Ederki.

BEGOÑA:

Baina proba honen helburua ez da gutako zein den azkarrena ikustea, baizik eta baloratzea gai ote garen taldean lan egiteko. Beraz, sor dezagun konfiantza giroa gure artean. Eta topa dezagun satorra elkarlanean.

FERNANDO:

Oso polita. Baina satorrak ez duenez esango "Kaixo, satorra naiz", ba ezin elkarlanean aritu. Ezinezkoa da konfiantza giroa sortzea.

CARLOS:

Felipek arrazoi du.

FERNANDO:

Fernando.

CARLOS:

Hori, Fernando. (*Enriqueri*) Zu non ari zara lanean?

ENRIQUE:

Salmenta zuzendaria naiz janari enpresa batean.

FERNANDO:
Ze enpresatan?

ENRIQUE:
Aaa... Berak ez du esan ze bankutan lan egiten duen.

FERNANDO:
(*Carlos*) Primeran. Ba, ni ere salmenta zuzendaria naiz. Laborategi batean. Eta horregatik izugarri harritzen nau zu ez ezagutzeak. Nik Disfarman lan egiten dut, ez daukat eragozpenik izena esateko. Zu ze laborategitan zabilta?

CARLOS:
Hara, ba, nik ere ez dut esango.

BEGOÑA:
Nik badakit non lan egiten duen. Eta egia esaten ari da.

FERNANDO:
Eta nik nola dakit zu egia esaten ari zarela?

BEGOÑA:
Eta zergatik esan behar dut nik gezurra?

FERNANDO:
Ba, ez zaizulako komeni guri abantaila ematea.

BEGOÑA:
Ez sinistu, nahi ez baduzu; baina taldean jardun behar dugu. Oso inportantea da hiru benetakoen artean lan egitea, deskubritzeko nor den satorra. Nire buruaren kontra arituko nintzateke gezurra esanez gero.

FERNANDO:
Ba, esaiguzu ze bankutan lan egiten duzun. Ez ezkutatu datu hori. Zure buruaren kontra arituko zinateke gezurra esanez gero, ezta?

Carlosek eta Begoñak nola jokatu gogoeta egiten dute.

CARLOS:
Nik Rawental-en egiten dut lan.

FERNANDO:
Rawentalen? Ja.

CARLOS:
Bai, Rawentalen. Lehen ez dut esan, ba... ez dudalako esan. Baina uste dut hobe dela benetako hautagaiak baztertzen joatea, lehen Ernestok esan duen bezala.

ENRIQUE:
Enrique.

CARLOS:
Hori, Enrique.

FERNANDO:
Rawentalen? Noiztik?

CARLOS:
Bost urte daramatzat.

FERNANDO:
Felix Garrido ezagutuko duzu.

CARLOS:
Eeeez, nor da?

FERNANDO:
Eta Laura Sánchez?

CARLOS:
Laura bai.

FERNANDO:
Ja ja!

CARLOS:
Baina ez da Sánchez. Vázquez da, ezta?

FERNANDO:
Bai, Vázquez.

CARLOS:
Ja ja ja... (*Irabazi du*) Nor da Felix Garrido?

FERNANDO:
Nire lehengusua. Kapitaina da merkataritza nabigazioan.

CARLOS:
A ze elementua!

FERNANDO:
Zenbat denbora daramagu?

Begoñak erlojua begirutzen du.

BEGOÑA:
Lau minutu, ia.

FERNANDO:

Ba, has gaitezen benetako hautagaiak bazterten. Nire ustez... Carlos ez da satorra.

ENRIQUE (*Fernandori*):

Beharbada, bai. Beharbada, zuk badakizu gezurretan ari dela eta (Carlosen) bere bertsioari eusten diozu gu biok nahastearren.

FERNANDO:

Zuek biok? Begoñak ere bat egiten du Carlosen bertsioarekin.

CARLOS:

Ze bertsio eta ze arraio? Hara, ni ez naiz gezurretan ari. Zu, berriz... Sentitzen dut esatea, baina ezagutzen dut Disfarmako salmenta zuzendaria eta ez dauka zurekin inolako antzik. (*Harrapatzen ari delakoan*)

FERNANDO:

Nola izena du?

CARLOS:

Esadazu zuk.

FERNANDO:

Víctor Dunsberg.

CARLOS (*nahastuta*):

Baina lehen esan duzu zu zinela.

FERNANDO:

Bai. Eta ni naiz. Salmenta zuzendaria, Kantabriako delegazioan.

CARLOS:

Ez nuen ezagutzen Kantabriakoa.

FERNANDO:

Ba, orain bai. (*Irabazi egin dio*)

ENRIQUE (*haserre*):

Orain biok ari zarete igual gezurretan.

FERNANDO:

Orduan, bera (Begoña) ere bai.

ENRIQUE:

Berak gezurra esan badu, zuk ere bai.

FERNANDO:

Berak gezurra esan badu, bere arazoa da. Zergatik esango dut nik gezurra?

ENRIQUE:

Ba, berarekin bat egiten duzulako ni engainatzearren.

BEGOÑA (*Enriqueri*):

Nik ez dut gezurrik esan. Inork ezin dezake bat egin nik esan ez dudan gezur batekin.

ENRIQUE:

(*Begoñari*) Beharbada ez, beharbada ez duzu gezurrik esan. Baina hori (Fernando) konturatu bada beste hau (Carlos) gezurretan ari dela, zuk ere gezurra esan duzula pentsatuko du, eta bat egingo du zure gezurrarekin, gezurra ez bada ere.

FERNANDO:

Hara, motel, zeharo nahasten ari zara.

ENRIQUE:

Ez ba. Hau (Carlos) ez bada lehen esan duena, eta zuek biok gezurretan ari dela baldin badakizue, niri ere gezurra esango didazue, bere gezurrari eusteko.

FERNANDO:

Etzazu hainbeste pentsatu: bistan da ez zaudela ohituta.

ENRIQUE:

Korapiloa askatzen ari naiz.

FERNANDO:

Lagunduko dizut nik korapiloa askatzen. Ni ariko banintz gezurretan, ni banintz satorra, jakingo nuke berak laborategi batean lan egiten duela. Dagoeneko, eginak ditugu hainbat elkarrizketa eta curriculuma ere emana dugu. Satorra banintz, dena jakingo nuke berari buruz, eta beste istorio bat asmatuko nuen, eta ez laborategi batean nabilela lanean, ze berak berehalaxe harrapatuko luke nire gezurra, nik ez baitaukat puta ideiarik ere laborategiei buruz.

Beste hirurek elkarri begiratzen diote.

ENRIQUE:

Barkatu, errepikatuko didazu, mesedez?

FERNANDO:

Barkatu, zurrupatuko didazu, mesedez?

CARLOS (*Enrique eta Begoñari*):

Ja, ja, ja. Nik sinisten diot. Zuetako bat izan behar du. Beharbada zu, Begoña; bankuaren kontu hori oso xelebrea da. Egia balitz, kontatuko zidan baten batek.

BEGOÑA:

Baliteke. Baina hemen lan egingo banu ere, kontatuko zizun baten batek.

CARLOS:
Arrazoi duzu.

BEGOÑA:
Egia aitortzen hasi garenez gero, BBKn egiten dut lan. Marketing saileko zuzendaria naiz.

CARLOS:
Noiztik?

BEGOÑA:
Sei hilabetetik hona.

CARLOS:
Sei hilabete. Eta aldatu nahian zabiltza?

BEGOÑA:
Ba bai, zer gertatzen da?

CARLOS:
Ez, ezer ez.

ENRIQUE (*Argia egiten zaio buruan*):
Horixe. Badakit... Alferrik ari gara. Adarra jo nahi digute.

FERNANDO:
Digute? Nork?

ENRIQUE:
Hautagai faltsu bat dagoela esan digute, eta guk sinistu. Eta laurok baldin bagara benetako hautagaiak eta hemen ez badago satorrik?

CARLOS:
Orduan, zertarako balio du komedia honek?

Fernandok zigarroa pizten du.

ENRIQUE (*Carlosi*):
Ba, engainuaz jabetzeko gai ote garen ikusteko. Estatu Batuetan oso normalak (omen) dira halako probak. Haiek problema bat planteatzen dute, enigma bat, ikusteko ea gai zaren problema horri beste alde batetik heltzeko. Hemen nahi dute denok sinistea hautagaietako bat faltsua dela; eta hortxe dago hain zuzen engainua.

CARLOS:
Ba ez. Eta arrazoi simple batengatik. Alferrik gabiltza ze argiak garen frogatu nahian, ez badago horretaz jabetuko denik.

ENRIQUE:
Hor kanpoan egongo da baten bat. Seguru hau kameraz josita dagoela.

FERNANDO:

Kamerak?

ENRIQUE:

Bai. (*Fernandok zigarroa itzaltzen du*) Oso kontu zaharra da: Hautagaiak itxitura batean sartu eta bakar-bakarrik daudela uste dutenean, kanpotik grabatu. National Geographic-en bezala.

FERNANDO:

Begira, zure bertsioa hain da perfektua, nik ez dut tutik ere sinisten. Zu zara satorra. (*Carlosi. Tokia kentzera doala ikusten baitu*) Eseri, eseri nahi baduzu.

CARLOS:

Ez, ez.

FERNANDO (*Enriqueri*):

Oraindik ez diguzu esan non egiten duzun lan. Eta oso informazio osatua daukazu mota honetako probei buruz, eta horrek argi eta garbi uzten du hautaketa taldearen kidea zarela.

BEGOÑA:

Bai, nik ere hala uste dut. Gainera, noiz asmatuko aitzaki hori, eta juxtu paretaren kontra sentitu denean. Ikusi duenean bera zela susmagarri bakarra. Orduan bururatu zaio engainatu nahi gaituztela eta milonga hori guztia.

CARLOS:

Ez dakit. Nire ustez, sinesgarria da.

FERNANDO:

Ba, nire ustez, ez. Ze janari enpresatan lan egiten du?

ENRIQUE:

Ez dizuet esango.

CARLOS:

Zergatik?

ENRIQUE:

Ez dudalako nahi. Ez dut uste beharrezkoa denik.

CARLOS:

(*Enriquegatik*) Honek ez digu ezer esango laguntzeko. Ze enpresatan lan egiten duen esango baligu eta sinisgarria balitz, bat egingo genuke bere bertsioarekin. Baina, normala denez, irabazle bakarra izan nahi du. Nire ustez, laurok gara benetakoak.

FERNANDO:

Ez ba. Lehen, sartu denean, oso harrituta zegoen hautaketa sistemagatik. "Teknika modernoak" esan dit. Eta gero kontatu dit berak nola hautatzen dituen langileak. Oso jarrera susmagarria iruditu zait hasieratik.

ENRIQUE:

Ze jarrera?

FERNANDO:

Benetako hautagaia bazina, guk bezala egingo zenuke: elkarrizketa bat taldeka? Arazorik ez. Ulertzen zer esan nahi dudan? Hau ez da normala.

ENRIQUE:

Eta zuk esan duzuna al da normala?

FERNANDO:

Orain oso garbi daukat. Zu zara satorra, adiskide.

ENRIQUE:

Egia esaten ari naiz eta froga mordoa daukat. Baina ez dizuet bat bera ere emango. Huts egin nahi baduzue, zuek ikusi.

FERNANDO:

Froga mordoa dauka, baina ez digu bat bera ere emango. A ze kasualitatea, e, satorra.

ENRIQUE:

Ez daukat gogorik. Baboa izan naiz. Zain egon behar nuen zuek huts egin arte eta orduan tak nire bertsioa eman.

FERNANDO:

Ez duzu esan elkarlana egin behar genuela?

BEGOÑA:

Denbora amaitzen ari da. Erabaki bat hartu behar dugu.

CARLOS:

Ez dakit. Ni bat nator Enriquerekin. Laurok gara benetakoak.

ENRIQUE:

Nirea badakizue.

FERNANDO:

Nire ustez, bera (Enrique) da satorra. (*Begoñari*) Zu falta zara.

BEGOÑA:

Ez dakit. Ez nago seguru.

CARLOS (*keinuz*):

Tik-tak, tik-tak...

BEGOÑA:

Bale, ba nire ustez ere... satorra Enrique da.

ENRIQUE:

Bueno. (*Berak irabazi balu bezala jokutzen du. Seguru ematen du*)

Etenaldia.

FERNANDO:

Eta orain, zer?

Atetxoa zabaltzen da. Fernandok postontzi barrukoa hartzen du: kartazal bat, kanpoaldean Enrique Tolaretxipi izena idatzita duena.

FERNANDO:

Enrique Tolaretxipi.

Enriquek kartazalaren bila joan eta zabaldu egiten du. Irakurri egiten du, isilean, ezer esan gabe.

ENRIQUE:

Jo.

FERNANDO:

Irakurtzazu ahots goran, gizona.

ENRIQUE:

Ez, ezin dut.

Enriquek irakurtzen amaitu eta postontzian uzten du kartazala. Postontzia itxi egiten da.

CARLOS:

Zer dio?

FERNANDO:

Nork irabazi du?

ENRIQUE:

Ez du esaten.

BEGOÑA:

Ez du ezer esaten?

ENRIQUE:

Horretaz, ez.

CARLOS:

Zer dio paperak?

ENRIQUE:
Paperak... Ez dakit zer egin behar dudan...

BEGOÑA:
Ez dakizu? Ez duzu ulertu, ala?

ENRIQUE:
Ulertu dut, bai.

CARLOS:
Eta?

ENRIQUE:
Tira, ba, saiatuko naiz ondo azaltzen. (*Etenaldi txiki bat*) laz emaztea eta biok banandu egin ginen. Ez nuen espero. Ez nuen inondik (inola) ere espero. Eta depresioak hartu ninduen.

CARLOS:
Depresioa?

ENRIQUE:
Banantzea ez zen batere samurra izan. Banantze guztiak bezala, segur aski. Baina nik sentitzen nuen... dena hondatu egiten nuela ukitu orduko. Gu zoriontsuak ginen. Badakit gauza bera esaten duela mundu guztiak, baina gure kasuan egia da. Zoriontsuak ginen. Emazteak ere aitortu izan dit. Kontua da, halako batean, bakar-bakarrik ikusi nuela nire burua alokairuzko etxe batean. Ez nuen norekin mintzatu eta pixkanaka-pixkanaka nire baitara bildu nintzen.

FERNANDO:
Barkatu, baina istorio hunkigarri horrekin aurrera egin baino lehen, esango diguzu zertara datorren psikodrama hau?

ENRIQUE:
Txaten mundua ezagutzen duzue, ezta?

FERNANDO:
Ui, ui, ui...

ENRIQUE:
Ba, sartzen hasi nintzen. Norbaitekin hitz egitearren. (Behin) Egun batean hitzordua egin nuen neska batekin. Txateko batekin. Kafe bat hartzera joan ginen eta... oso ondo. Oso emakume ederra zen. Luze mintzatu ginen. Hurrengo batean, berriz ere elkartu ginen eta nire etxera eraman nuen. Nik ez nuen zerarik nahi. Baina... Etxera iritsi ginenean, (*lotsatuta*) pistola atera eta mehatxu egin zidan.

BEGOÑA:
Pistola?

ENRIQUE:

Bai, eta orduan gizaseme bat azaldu zen, konplizea, eta sekulako jipoia eman eta etxean neukan guztia lapurtu zidaten.

CARLOS:

Ostia, Jose Luis Morenori bezala. (*Barrez*)

ENRIQUE:

Gero, pare bat kutxazainera eraman ninduten eta ahal izan zuten guztia atera zuten txartelekin. Harrezkero, kontrola galdu nuen.

FERNANDO (*Carlos*):

Kontrola galdu, zerena, autoarena? Baina, ze arraiotaz ari da?

CARLOS (*Fernandori*):

Ni ere flipa-flipa eginda nago.

BEGOÑA:

Mesedez, errespetu pixka bat.

ENRIQUE:

Medikuak baja eman nahi zidan, baina nik ez nion hartu: lantegi berri bat zabaltzekotan ginen Pekinen. Nagusien konfiantza osoa nuen eta huts egin nien. Zeinek agindu ote zidan niri txinatar batekin tratuan hasteko. Nik beti oso emaitza onak lortu izan ditut, baina gauzak joan diren bezala joan dira, eta normala da nagusiek erabakiren bat hartu behar izatea nire etorkizunari buruz. Eta, honenbestez, iritsia naiz zuei dagokizuen puntura.

FERNANDO:

Eskerrak!

ENRIQUE:

Erabakia zuek hartzeko eskatu didate, nire nagusiak bazinete bezala. Erabaki behar duzue Txinako proiektuarekin jarraitu behar dudan edo kalera bota behar nauzuen. (*Zakarrontzian esertzen da*) Mentolin bat?

Beste hirurek elkarri begiratzen diote. Etenaldia.

CARLOS:

Erabaki, guk?

ENRIQUE:

Bai.

BEGOÑA:

Hori eskatu dizute?

ENRIQUE:

Bai.

BEGOÑA (*Erlojuari begiratzuz*):

Oso ondo. Jolas egin dezagun. Baina zerbait erabakitzeke datu gehiago behar ditugu.

ENRIQUE:

Galdetu.

CARLOS:

Konforme. Ni hasiko naiz.

ENRIQUE:

Galdetu nahi duzuna.

CARLOS:

Emazteak zergatik utzi zintuen?

ENRIQUE:

Horri ez diot erantzungo.

CARLOS:

Galdetzeko esan didazu.

ENRIQUE:

Zergatik utzi ninduen ez da garrantzitsua. Nahikoa miseria kontatu dizuet.

FERNANDO:

Ba, egia esan, bai. Txateko neskarena negargarria izan da. Beraz, bigarren zatia ez baduzu kontatzen, hobe.

ENRIQUE:

Tira, kontatuko dizuet. Nire emazteak abentura bat nuela deskubritu zuen.

CARLOS:

Abentura bat, norekin?

ENRIQUE:

Enpresako saltzaile batekin.

FERNANDO:

Beste bat? Nahikoa entzun dugu. Kalera eta kito.

BEGOÑA:

Ez, ez da hain erraza. Profesional ona da. Kaleratzen badugu, beharbada kostako zaigu ezaugarri bereko pertsona bat topatzea. Beraz, tentuz ibili behar dugu.

FERNANDO: (*Ironiaz*)

Bai, tentuz ibili behar dugu.

CARLOS:

Eta saltzailearekin zenuen abentura hori, zer, amaitu da edo elkarrekin jarraitzen duzue?

ENRIQUE:

Hilabeteak dira amaitu zela.

CARLOS:

Oso ondo. (*Fernando eta Begoñari*) Hobeto. Banantzea, gainditua duzu?

ENRIQUE:

Ez dakit. (*Negarrez*) Oraindik ere, maiz akordatzen naiz emaztearekin.

FERNANDO (*Imitatuz*):

Maiz akordatzen da emaztearekin... Entzun, mingarria zait oso gure adiskidea banandu izana; baina, esku artean daukagun auzia kontuan hartuta, bost axola. (*Enriquek zintz egiten du*) Halakoa da bizitza. Depresioan erori eta txorakeriatan hasi zen. Sentitzen dut. Zer dela eta utzi dion lan egiteari ze ostia inporta zait niri. Hemen gauza bakarra inporta du, gizajo hau ipurdi-bistan geratu dela, eta gu ez gara dirua galtzen ibiliko berak prakak jantzi arte. Hor konpon.

BEGOÑA:

Eta oporrak ematen badizkiogu?

FERNANDO:

Oporrak? Memelo arraio honek zeharo kakaztu du dena. Adarrak jarri dizkio emazteari, eta emazteak harrapatu egin du. Sekulako inbertsioa zapuztu digu eta oporrak eman nahi dizkiozu? Zer gara gu, enpresa bat edo Caritas?

BEGOÑA:

Momentuz, hobe izango da beste batek egitea haren lana. Baina behin depresioa gainditzen duenean, zergatik ez eman bigarren aukera bat? Exekutibo baliotsua da.

FERNANDO:

Ze aukera eta ze ostia! Hemen edo funtzionatzen duzu edo ez duzu funtzionatzen.

BEGOÑA:

Denok izaten ditugu krisialdiak.

FERNANDO:

Hitz egintzazu zure buruaz. Nik ez dut sekula krisialdirik izan. (*Enriqueri*) Eta egun txarra baldin badaukat, ez zait antzeman ere egiten. (*Begoñari*) Bulegora iristean, zirkuko pailazoen antzera egin behar duzu: dagokizun aurpegia margotu, atseginarena edo putakumearena, eta segi aurrera. Hori egiteko gai ez bazara, ez duzu putza balio.

BEGOÑA:
Eta zuk talde bat zuzentzen duzu?

FERNANDO (*Ligo*):
Ba, bai.

BEGOÑA:
Estimu handian izango zaituzte.

FERNANDO:
Estima ditzatela beren emazteak. Nigatik, helburuak betetzen badituzte, budu ere egitea daukate.

CARLOS (*Enriquegatik*):
Berak ere izango du zer esana. Saltzaile hori, nolakoa zen?

ENRIQUE:
Nolakoa zen?

CARLOS:
Bai, zer zeukan? Zergatik nahastu zinen harekin?

ENRIQUE:
Ba...

FERNANDO:
Zer zeukan? Ba, ze izango zuen? Ipurdia eta titi pare bat, neska guztiek bezala. Ze galdera klase dira horiek?

BEGOÑA:
Faborez.

FERNANDO:
Galdeiozu ze desodorante erabiltzen zuen? Horrek ere sekulako garrantzia izango du.

CARLOS (*Enriqueri*):
Nik jakin nahi dut maitalea gogoan daukazun oraindik. Zuk nola ikusten duzu zure burua? Ondo zaude?

ENRIQUE:
Tira, bai.

CARLOS:
Gure tokian egonez gero, zer egingo zenuke?

ENRIQUE:
Hori ez da kontua.

CARLOS:

Bai, hori da kontua. Nik kontatu izan banu istorio hori, zuk ze erabaki hartuko zenuke?

ENRIQUE:

Hemen bakoitzak bere zeregina dauka. Nirea ez da hori.

BEGOÑA (*Haserre*):

Baina borroka pixka bat egin dezakezu, gizona. Hemen gabiltza erabakitzen gurekin jarraitu behar duzun edo zer, eta zure jarrera ikusita bistan da bost axola zaizula. Badirudi kalean amaitzeko gogoia daukazula. Enpresan geratu nahi duzu, bai ala ez?

ENRIQUE (*Negarti*):

Bai.

FERNANDO:

Hori da grina.

CARLOS:

Begoñak arrazoi du. Ez dakit. Esaiguzu gaintitzen ari zarela, bizitzak ez dizula berriz ere lana oztopatuko. Zer dakit ba nik. Defendatu zure burua.

ENRIQUE:

Nik defendatu dut nire burua. Nire modura.

FERNANDO:

Ba, zure modua kaka hutsa da. Badakizu zer gustatuko litzaidakeen? Aukera edukitzea benetan kalera botatzeko, txotxoloa izateagatik. Gustura asko geratuko nintzateke, ez izan zalantzarik. Baina, itxaron pixka bat. Horixe. Kontatu digun guztia gezurra da. Bera da infiltratua, seguru. Lehenago ez konturatzea. Lehen kontatu dit berak ez duela sekula multinazional batean lan egin eta orain zer kontatuko eta bere enpresa merkatua zabaltzen ari dela Txinan. Alegia, edo orain ari da gezurretan edo lehen. Edo orain eta lehen, baina gezurra esan digu.

ENRIQUE:

Nik ez dut gezurrik esan. Ez naiz inoiz ibili multinazional batean. Lehenengo aldia da gure enpresak lantegi bat zabaltzen duena (-ela) kanpoan.

FERNANDO:

Bai, noski. Orain konpondu egin nahi duzu. Nik arrazoi nuen hasieratik. Zu zara satorra. SATORRA!

ENRIQUE:

(*Keinuz. Segi.*)

FERNANDO:

Ez al duzue ikusten? Baina, tira, jolasean jarraitu nahi baduzue, nik ez daukat inolako eragozpenik. Kontatu digun istorio zoragarri hori entzun eta gero,

erabaki behar dugu kalera botako ote genukeen. Ba, nik bai. Kalera botako nuke. Etxeko arazoak lanera eramateagatik. Popatik hartzera, kalera eta akabo kristo. Negar egitera, tabernara.

ENRIQUE:
Oso oker zaude.

BEGOÑA:
Zure ustez, gai zara Txinako lantegian ditugun arazoak konpontzeko?

ENRIQUE:
Hala uste dut. Badakit zertan huts egin dugun. Eta prest nago hara joan eta lana koordinatzeko behar beste denboran.

CARLOS:
Seme-alabarik baduzu?

ENRIQUE:
Bai, sumatuko dut haien falta. Baina, bestalde, ondo etorriko zait bolada batez kanpoan ibiltzea.

BEGOÑA:
Ba, ni konbentzitu nau. Gera dadila eta jarrai dezala lanean.

FERNANDO:
Gera dadila? Nor? Mister "psikodramas"?

BEGOÑA:
Gainera, oso irudi txarra emango genuke beste exekutiboen aurrean langile bat kaleratuko bagenu arrazoi pertsonalengatik. Nire ustez, onena bere alde egitea da.

ENRIQUE: Eskerrik asko.

CARLOS:
Ba, ni ere ados nago: gera dadila.

FERNANDO:
Eta hau da, zuen iritziz, erabakiak modu profesionalean hartzea? Faborez. Baina bi zarete baten kontra. Beraz, irabazi egin duzue. Halakoa da demokrazia, ezta?

BEGOÑA:
Ba, erabakita. Ez zaitugu kalean utziko.

ENRIQUE:
Garbi daukazue? (*Pozari eutsiz*)

CARLOS:
Bai.

Enriquek ukabilak ixten ditu, garaipena ospatzeko. Beste hirurek elkarri begiratzen diote.

ENRIQUE:

(Bere buruari) Hi haiz hi! Uste baino errazagoa izan da. Zuek ez kaleratzea lortu behar nuen. Hori zen proba.

FERNANDO:

Kabroia halakoa.

CARLOS:

(Kartazal barruko mezua irakurriz) "Lortu behar duzu besteek enpresatik ez kaleratzea."

Eta zure emaztearen istorioa eta banantzea, egia da edo ez?

ENRIQUE:

Bai.

CARLOS:

Hori gertatu zitzaizun janari enpresa horretan?

ENRIQUE *(dantzan:"Brasil...")*:

Bai jauna.

BEGOÑA:

Eta nagusiek zer egin dute, kalera bota zaituzte?

ENRIQUE:

Oporrak eman dizkidate.

FERNANDO:

Eta txateko neskarena ere egia da?

ENRIQUE:

Exageratu egin dut pixka bat. Pentsatu dut horrekin bigundu egingo zinetela. Benetan, haluzinatzen ari naiz hautaketa sistema honekin. Ikaragarri ona da. Jaunak, zaudeten tokian zaudetela, *chapeau*.

FERNANDO:

Primeran egin duzu. Hor goian txundituta egongo dira trafikoari buruz esan dituzunekin. Nik, errespetu guztiarekin, uste dut sistema horiek kaka hutsa direla. Eta goiko horiek onak badira, aintzat hartuko dute nire zintzotasuna. Horrela funtzionatzen dute. Egidazue kasu. Psikologo hauek bihurriak dira: adi-adi egoten dira beti. Eta egun zoritxarreko batean gaizki baldin bazaude haurrak gutxiegi atera duelako matematikan, edo autoa lapurtu dizutelako, edo emazteak utzi zaituelako, edo barrabiletan mina daukazulako, ba, kontua da zurekin sartzen hasten direla, "laguntza ematen" saiatzen dira, ahaleginak egiten dituzte uler dezazun kaka hutsa zarela baina ez dela ezer gertatzen. Eta

orduan bai deprimitzen zarela zeharo, eta haiek pozik, ondo jabetuta zeudelako depresioan erortzeko zorian zeundela. Hala jokutzen dute, ezta?

ENRIQUE:

Zerbait daukazu nirekin?

FERNANDO:

Nik, zurekin, ez. Baina hain ongi informatua zaudenez...

ENRIQUE (*Irabazi duenaren harropuzkeriaz*):

Zuk esperientzia txarren bat izan duzu psikologoekin.

FERNANDO (*Pentsatzen du: Nola jakin dute hori?*):

Baten batek izan du esperientzia onik, ala?

CARLOS:

Urduri zaude huts egin duzulako bi probetan.

FERNANDO:

Ez dakit nork huts egin duen. Baina, azkenean, hau (Enrique) hartuko dute, eta zuei bioi babalore aurpegia geratuko zaizue.

ENRIQUE:

Ni? Baina ez al duzu esan satorra naizela?

FERNANDO:

Begira, hemendik aurrera, nik ez dut tutik esango.

Postontziaren atetxoa zabaltzen da. Enrique hurbildu egiten da, begiratzera, poz-pozik.

ENRIQUE (*Sinistu ezinik*):

Ez duzue sinistuko.

Lau kapela ateratzen ditu. Bat toreroarena, beste bat pailazoarena, luze horietako bat eta apezpikuaren mitra bat. Kapelekin batera datorren testua irakurtzen du.

ENRIQUE:

“Jantzi kapela bana, eta zabaldu kartazala.”

Enriquek kapelak banatzen ditu. Berak kapela luzea hartzen du. Begoñari pailazoarena ematen dio; Carlosi, toreroarena; eta Fernandori apezpikuarena. Elkari begiratzen diote nork bere kapela jantzita duela.

FERNANDO (*Enrique kartazal barruko papera irakurtzen ari da, isilik*):

Hau surrealista da. Mesedea eskatu nahi dizuet: inoiz hemendik kanpo topo egiten badugu, joka dezagun hau sekula gertatu izan ez balitz bezala.

ENRIQUE:

A, oso ona. Ezagutzen dut joko hau. Ona.

Ahots gora irakurtzen du testua.

Hara: "Hegazkin bat sutan dago, lurra jotzeko zorian. Zuek zarete bidaiari bakarrak: pailazo bat, torero bat, apezpiku bat eta politikari bat. Parakaidas bakarra duzue. Defenda ezazue besteen aurrean zergatik merezi duen zuen pertsonaiak parakaidasa hartu eta bere burua salbatzea."

CARLOS:

Txistea ematen du. Baziren behin frantses bat, aleman bat eta euskaldun bat.

FERNANDO:

Ez dut ulertzen gauza bat. Gu baldin bagara bidaiari bakarrak, nor ari da hegazkina pilotatzen? Pailazoa?

BEGOÑA: *(Ez dio graziarik egin)*

Ja, ja, ja.

CARLOS:

Toreroa ez, behintzat. Nola egingo dugu? Bakoitzak bota dezala berea eta gero denon artean eztabaidatu?

ENRIQUE:

Bai, ezta?

BEGOÑA *(pailazoaren sudurra kenduta)*:

Proposamen bat. Gure artean apezpiku bat dago. Jainkoak hautatutako gizona, geroko bizitzan sinisten duena. Sakrifika dezala berak bere burua hurkoaren alde. Hori da kristau on baten jokabidea.

FERNANDO:

Apezpikua naiz, ez tontolapikoa.

BEGOÑA:

Broma zen.

FERNANDO:

Broma. A, noski, pailazoa zara-ta.

BEGOÑA:

Nahi baduzue, ni hasiko naiz.

ENRIQUE:

Hasi.

BEGOÑA:

Ni pailazoa naiz, eta oso eginkizun noblea eta onuragarria betetzen dut gizartean. Nik barrea eragiten diot jendeari. Plisti-plasta. *(Belarrondokoak*

Fernandori) Eta zer dago garrantzitsuagorik haur baten irribarrea baino? Ezer ez.

FERNANDO:

Hunkigarria. (*Enriqueri*) Botaka egiteko poltsak?

ENRIQUE (*Ibarretxe imitatuz*):

Pailazo andrea, pailazo jaunak. Baliteke irribarrea garrantzitsua izatea, baina irribarrea baino lehen haur horren ongizatea bermatu behar dugu. Eskola onak behar ditugu heziketa ona izan dezan. Haurra gaixotzen denerako, ospitaleak behar ditugu, medikuak behar ditugu, kontsultak behar ditugu.

FERNANDO:

Hegazkina erortzen ari da, lehendakari jauna.

ENRIQUE:

Badakit. Badakit. Badakit politikariok, gaur egun, ez dugula prestigio handirik. Badakit. Baina gu gabe, pailazoak ezingo lieke haurrei irribarrea atera, toreroak ezingo luke toreatu, eta apezpikuak ez luke bezerorik izango. Horregatik, uste dut politikariak direla, gu garela, ni naizela, EAJ dela salbatzea merezi duena. Eskerrik asko, eta Urte Berri On.

CARLOS:

Nire txanda. Ba ni... toreroa naiz. Zuek esango duzue munduari bost axola diola torero bat gehiago edo gutxiago egoteak. Baina ezta pentsatu ere. Oso oker zaudete. Toreroa da... Toreroak dauka... Toreroak arrisku bizian jartzen du bere bizitza arratsaldero. Zuek ez zarete inoiz jarri zezen baten aurrean. Ez dakizue zer den hori. Nik bai. Torerook badaukagu... Toreroa zezen-plazan dagoenean, toreroaren ama otoitzean ari da, toreroaren emaztea otoitzean ari da, toreroaren seme-alabak otoitzean ari dira, toreroaren koskabiloak ere otoitzean ari dira. Zeren alde ari dira otoitzean? Zezenaren alde? Toro, toro, toro! Ez, toreroaren alde ari dira. Torero, torero, torero! Gogoratu Garcia Marquezen bertso haiek... "Eran las cinco de la tarde..." No. Garcia Lorca. "A las cinco de la tarde..." (*Kantatuz*) "Tarde, qué tardeee de bochorno. Dios quiera que los toreros puedan con los toros. Dios quiera que los toreros puedan con los toros" (*Haserre. Kapela kenduz*) Barkatu, baina hau ez dago defendatzerik. Ez zait ezer bururatzen.

Denak zur eta lur.

FERNANDO:

Anai-arrebok ebok/ebok... Bildu gara hemen emen/emem tontolapikoarena egiteko eko/eko. Baina probidentziak hori dauka uka/uka, eta Jainkoaren asmoak hain dira ira/ira...

Begoñaren mugikorrek jotzen du.

BEGOÑA:

Barkatu: zain nengoen...

FERNANDO:
Lasai, asai/asai...

Begoña telefonoa konektatu eta aretoaren bazter batera doa.

BEGOÑA: (*Telefonoz*)
Laura, esan.

FERNANDO:
Itxarongo dut andreak amaitu arte arte/arte?

BEGOÑA: (*Telefonoz*)
Zer?

FERNANDO:
Hala dirudi udi/udi.

BEGOÑA: (*Telefonoz*)
Eta zer moduz dago? Zer esan du medikuak? Bai, joango naiz, baina orain bilera batean nago.

Begoñak ahotsa altxatzen du. Besteek entzun egiten diote.

Ez duzu esan ez dela larria? Edo larria da edo ez da larria, Laura, jode... Niretzat "larria" "larria" da. Hamaika aldiz ingresatu dugu. Orain ez da hasiko... Ez niri halakorik esan. Ez daukazu inongo eskubiderik. Nik egin beharrekoa egingo dut. Beti egiten dut. Zuk ez didazu esango nola... Ba, listo. Baietz, joango naiz. Ahal dudanean. Agur.

Begoñak telefonoa gordetzen du.

CARLOS:
Arazoren bat?

BEGOÑA:
Ez, bat ere ez. Esan dizuete zenbat iraungo duen honek?

ENRIQUE:
Ez.

BEGOÑA:
Jarrai dezagun.

FERNANDO:
Eskerrik asko, alabatxo atxo/atxo. Hegazkin honetan etan/etan... Bueno inporta ez bazaizue, oihartzuna kenduko dut denbora irabazteko. Hegazkin honetan gauzak nola dauden ikusita, ezinbestekoa zait neurri zorrotzak hartzea. Nik orain, lasai-lasai eta astiro-astiro, parakaidasa jantzi eta salto egingo dut hegazkinetik behera. Eta zuetakoren batek trabak jartzen badizkit, gauza bakarra lortuko du: ni baino lehenago irtetea hegazkinetik. Ja, ja, ja.

Parakaidasik gabe, noski. Dena dela, gai honetan profesionala naizenez, betirako bizitza ziurtatzen dizuet. *In nomine patri et filii et spiritus sancti txibiri, txibiri, txero. Amen.* Eta hori da guztia, uste dut esana dagoela dena. Anai-arrebok, agur.

CARLOS (*Fernandori*):
Zertan ari zara?

ENRIQUE (*Fernandori*)
Jokoa ez da horrela.

FERNANDO: (*Ahotsa urrunduz*)
Ez nago hemen. Salto egin duuuuuut. (*Bere showa egiten du.*)

CARLOS:
Eta orain, zer?

ENRIQUE:
Ez dakit. *Enrique Begoñarengana hurbiltzen da.* Ondo zaude, benetan? Lehen entzun egin dut nahi gabe, eta...

BEGOÑA:
Nire ama makal dabil. Ez da larria.

ENRIQUE:
Joan behar baduzu, ulertuko dute.

BEGOÑA:
Ez dela ezer. Askotan ingresatu dugu. Gero deituko dut.

Atetxoa zabaltzen da. Carlosek kartazal bat ateratzen du postontzitik.

CARLOS:
Carlos Telleria. Niretzat.

Carlosek kartazala zabaldu eta irakurri egiten du, isilik.

(*Haserre*) Ze arraio da hau? (*Kamerei begiratzuz*) Ez daukate inolako eskubiderik.

BEGOÑA:
Zer gertatzen da?

CARLOS:
Gauza bat da joko txatxuak egin behar izatea, eta beste bat hau.

FERNANDO:
Zer dio, musikal bat antzeztu behar dugu?

CARLOS:
Ezer ez. Ez dut irakurriko.

FERNANDO:
Nola ezetz?

CARLOS:
Hau ez zaizue interesatzen. Ez zuei, ez haiei. Ez dakit nola arraio jakin duten. Ostia!

ENRIQUE:
Baina irakurtzen ez baduzu, zer egin behar dugu?

CARLOS (*Agresibitatea gorantz hemendik aurrera*):
Hemen nitaz hitz egiten da, nire bizitzaz, zuei inporta ez zaizkizuen kontu pribatuez. Gauza hauek ez daukate zerikusirik lanpostuarekin.

ENRIQUE:
Nire kontu pribatuak ere atera dituzte, eta nik onartu egin dut.

CARLOS:
Baina hau oso desberdina da, ostia.

FERNANDO:
Zeuk ikusi. Edo irakurri edo ospa hemendik.

Carlos pentsakor geratzen da.

Kenduko ditugu kapelatxo hauek, ezta?

Kapela kentzen dute Carlosek ez beste guztiek. Carlosek pentsatzen jarraitzen du.

CARLOS (*kapela jantzita duela*):
Ondo pentsatuta, hau ez da ezkutuan gorde beharreko kontu bat, edo lotsa ematekoa. Irakurri egingo dut:
“Carlos Telleria hormona tratamendua egiten ari da.”

BEGOÑA:
Zer?

CARLOS:
“Eta horrek etorkizunean sexua aldatzeko aukera emango dio ebakuntza baten bitartez.” Putakumeak! “Zuek erabaki hautagai egokia ote den gure enpresan sartzeko. Zuen ustez, haren profila ez bada lanbideari dagokiona, Carlos Telleriak hautaketa prozesua utzi beharko du.” Kito, bukatu da.

Carlosek postontzira hurbildu, papera sartu eta postontzia ixten du berriro.

BEGOÑA:
Carlos...

CARLOS:
Harrigarria, ezta?

BEGOÑA:
Baina ez da egia.

CARLOS:
Bai, egia da. (*Papera ematen dio*)

BEGOÑA:
Sexua aldatu nahi duzu?

CARLOS:
Bai.

Begoñari ihes egiten dio barreak.

BEGOÑA:
Barkatu...

FERNANDO:
Faborez. Ez daukat hitzik. Eta ez pentsa askotan gertatzen zaidanik hau; baina, oraingoa, aitortu beharra daukat: hitzik gabe geratu naiz.

CARLOS:
Baina nola jakin dute? Ezin dut ulertu.

BEGOÑA:
Txantxetan ari zara, ezta?

CARLOS:
Ez.

ENRIQUE:
Ez?

CARLOS:
Bi aste daramatzat hormonak hartzen.

BEGOÑA:
Baina, zer diozu?

FERNANDO:
(*Begoñari*) Zuk ez al zenuen nahi emakumezkoen ehuneko berrogeita hamarreko kuota? Ba, hortxe daukazu.

CARLOS:
Broma gutxi niri.

FERNANDO:
Izugarria. A ze pitokeriak egiten dituen jendeak. Bueno, zure kasuan pitokeria ez da zehatz-mehatz. Ez da harritzekoa lan bila ibiltzea; ze Rawentalekoak Opusekoak dira goitik behera eta kalean jarriko zaituzte lehen bularretakoa erosi baino lehen.

CARLOS:
Horregatik nabil lan bila.

ENRIQUE:
Eta hemen ez duzu ezer esan?

CARLOS:
Zertarako?

FERNANDO:
Ez, ezertarako ez. Ez dauka batere eraginik lanean. Dekiakoez hautatuko dute marketing zuzendari Carlos izeneko tipo bat, eta handik hamabost egunera, Carlos Carlota bihurtuko da. Normal-normala.

CARLOS:
Ba, bai. Eta halako titi puskekin. Arazoren bat?

FERNANDO:
Ez, ezer ez. Hala bada, ez dago arazorik. Normala da.

ENRIQUE:
Normala, normala... Zer nahi duzu esatea?

CARLOS (*Enriqueri*):
Nik ez nuen ezkutatzeko asmorik. Harrapatuz gero, kontatzeko asmoa nuen. Baina ez aurretik, ez nuen nahi honek eraginik izatea hautaketa prozesuan.

FERNANDO:
Ya, eta behin kontratua sinatuta, zuk sorpresatxoa emango zenien, eta kaleratuz gero, magistraturara eraman.

CARLOS (*Fernandori*):
Zuk pelikula asko ikusi dituzu.

BEGOÑA (*Haluzinaturik*):
Carlos, hau ez dago sinisterik. Zuk, fakultatean, neska askorekin ligatu zenuen.

CARLOS:
Ez nuelako onartzen nire burua den bezala.

FERNANDO:
To esaldia.

BEGOÑA:
Carlos, mesedez. Zuk eta nik fakultatean...

CARLOS:
Bai, eta zer?

BEGOÑA:
Ba, niri ez zitzaidala iruditu batere arazorik zenuenik sexu kontuetan. Oso ondo egon zen.

FERNANDO:
Barkatuko didazue. Ez dut zakarra izan nahi, baina zuk... Nola deitu behar dizut, Carlos edo...?

CARLOS:
Carlos, oraingoz.

FERNANDO:
Ba, Carlos Oraingoz, zuk ezin duzu lehiatu hau bezalako lanpostu bat lortzeko eta aldi berean trabesti izateko oposizioak prestatu. Ez da serioa.

CARLOS:
Ni ez naiz trabestia. Trabestia izatea beste gauza bat da.

FERNANDO:
(*Carlos*) Ba, nahi duzuna. Baina niri zure tokian jarri eta eskemak puskatzen zaizkit.

ENRIQUE:
(*Fernandori*) Horixe da, hain zuzen, eskatu digutena: Carlotaren... Barkatu, Carlosen lekuan jartzea.

CARLOS:
Lan eskaintzan ez zen aipatzen inolako mugarik sexu kontuak direla eta.

FERNANDO:
Eta zer nahi zenuen iragarkian jartzea, "Marketing zuzendari normala behar dugu. Trabestirik ez, mesedez"?

CARLOS (*mehatxu eginez*):
Ez deitu berriro trabestia.

FERNANDO:
Eta nola nahi duzu deitzea?

CARLOS:
Izatekotan, transexuala, baina hobe jendeari etiketarik ez jartzea.

FERNANDO:

Begira, niri bost axola polena ziztatu eta amapola bihurtzen bazara ere. Eta trabestia bazara, edo, transexuala, edo transatlantikoa, hor konpon. Baina hona goi mailako exekutiboaren lanpostua lortzera etorri zara. Eta garbi ez badaukazu arra edo emea ote zaren, ba horrek esan nahi du sekulako kakanahastea daukazula buruan.

CARLOS (*Fernando jotzera doa boligrafoa eskuan*):

Hara, nirekin sartzen bazara berriro, begi bat aterako dizut.

FERNANDO:

Barkatu, barkatu.

ENRIQUE:

Lasai.

FERNANDO:

Zuk arazo larria daukazu, neska.

CARLOS:

Zurea bai larria!

BEGOÑA:

Aizue, mesedez.

CARLOS:

Gauza batzuk ezin ditut eraman. Ostia!

BEGOÑA:

Lasai.

CARLOS:

Kito. Bukatu da.

Enrique Carlosengana hurbiltzen da, lasaituago.

ENRIQUE:

Mentolin bat?

CARLOS (*keinuz*):

(*Ezizkidazu barrabilak berotu*)

FERNANDO:

Pertsona batek halako indarkeriaz erreakzionatzen badu, ez dauka etorkizunik exekutibo bezala.

CARLOS:

Etorkizun gutxiago izango du besteak juzgatzen baldin baditu aurreiritziak kontuan hartuta eta ez gaitasun profesionalak.

FERNANDO:

Nola antzematen zaizun ikastetxe pribatu batean ikasi duzula, Carlota.

BEGOÑA:

Mesedez, uztazu bakean.

FERNANDO:

Barkatu, Carlos, nahiago duzu Carlos, oraingoz. *Keinuz: Isildu egingo naiz.*

ENRIQUE:

Kasu hau nirea baino konplikatua da. Planteatu diguten arazoa sexu aldaketari buruzkoa da. Ez dauka zerikusirik gaitasun profesionalekin.

BEGOÑA:

Ba, zer nahi duzu esatea? Niri zaila egiten zait honetaz hitz egitea.

ENRIQUE:

Baina hitz egin behar dugu.

BEGOÑA:

Carlos laguna dut. Estimutzen dut, baina...

CARLOS:

Baina?

BEGOÑA:

Kosta egiten zait sinistea...

FERNANDO (*marikoiarena eginez*):

Zer? Moztu egin behar duela? Ai, neska, baina gauza normala da.

ENRIQUE:

Guk faktore guztiak hartu behar ditugu kontuan. Pentsatzen dut, zera hori egindakoa... bolada luzea eman beharko duzula bajaran.

CARLOS:

Ez hain luzea.

FERNANDO:

Arazoa ez da bajaran egotea. Arazoa da bajatik itzultzean idazkariak poxpolinaz jantzita ikusi eta bihotz kolapsoa izango duela eta bertan zerraldo gelditu.

BEGOÑA:

Zuk ezin duzu serio hitz egin ezertaz?

FERNANDO:

Nola nahi duzu serio hitz egitea horretaz?

ENRIQUE:

Arrazoi duzu. Ez dago hori sinistuko duenik. Gezurretan ari da. Zu zure proba egiten ari zara: zera hori egingo dizutela sinistarazi behar diguzu.

CARLOS:

Zuk hobe zenuke gauzei hainbeste buelta ez ematea. Naizen bezalakoa naiz. Zuhur jokatu nahi nuen bolada batean, baina jakinaren gainean daude. Zer nahi duzu egitea?

ENRIQUE:

Nondik atera dute informazioa zuk ez badiezu ezer esan?

CARLOS:

Horixe jakin nahi nuke nik ere. Nire laguneren batek kontatuko zien.

ENRIQUE (*Konplizitatea bilatu nahian Fernandorekin*):

Horixe. Ederra probatxoa. Ona. Guk istorio hori irestea lortu izan bazenu, munduko saltzailerik onena zinateke.

CARLOS:

Enrique, egia da.

BEGOÑA (*Carlosi*):

Jakina. Nire txanda iritsitakoan, auskalo zer eskatuko didaten. Moja naizela sinistaraztea igual edo... estralurtarra.

CARLOS:

(*Kartera atera eta paper bat bilatzen du*) Hara, tori sendagaiaren errezeta eta medikuaren telefonoa. Deitu, nahi baduzue (*Begoñari ematen dizkio*).

ENRIQUE:

Prestatuta egon daiteke dena.

CARLOS:

Nola nahi duzu prestatuta egotea? Nik ez nekien honekin etorriko zirenik. Errezeta hemen badaukat, nirea delako izango da.

ENRIQUE:

Baliteke zurekin dena hitz eginda egotea: prozesuaren berri eman dizute eta koartada bat prestatzeko eskatu. (*Tokia kendu diolako*) A, barkatu.

CARLOS:

Aizu, Bilboko despatxu batean gaude; ez Agata Christieren nobela batean.

FERNANDO:

Nire iritziz, egia esaten ari da. Hain da neurritz kanpoko kontua, egia izan behar du.

ENRIQUE:

Baina orduan, pertsona egokia ez dela erabakitzen badugu, alde egin behar du. Hori esan digute.

FERNANDO:

Hori da. Bota dezagun, eta bat gutxiago.

BEGOÑA:

Ba, ni konbentzituta nago ez dela egia. Eta botatzen badugu, gezur batengatik botako dugu, eta nik ez dut ulertzen.

CARLOS:

Zergatik ez didazue sinistu nahi? Sexu aldaketa ez da garai batean bezain arraroa. Zientziak frogatu du gizon eta emakume batzuk gorputz arrotzean harrapaturik bizi direla. Sei urte daramatzat psikiatraren kontsultara joaten eta berak aholkatu dit ebakuntza egitea. Egia esatea nahi baduzue, lanpostu honek gero eta garrantzi gutxiago dauka niretzat. Nahiago dut zuek sinistea eta onartzea pertsona batek bere bizitza bideratu dezakeela eta hori gauza normala dela. Zuk, Enrique, seme-alabak daukazazu. Imajinatu haietako bati gertatzen zaiola hau bera. Zuk bizimodu normala edukitzea nahi izango zenuke, ezta? Eta zuri, Begoña, eskertuko nizuke nire laguna izaten jarraituko bazenu. Niretzat, hori da orain funtsezkoena. Nik pertsona bera izaten jarraituko dut, baina pixka bat zoriontsuagoa. Hala espero dut, behintzat.

BEGOÑA:

Carlos, mesedez, ezidazu hau egin.

CARLOS:

Zer, ordea?

BEGOÑA:

Ba, ez dakit... gaizki sentiarazten nauzu.

CARLOS:

Ezizu erreparatu hainbeste itxurari. Premia daukat nire lagunak ulertzeko. Ezidazu bizkarra eman. Zuk ez, faborez. Bi hauek bota egingo naute, seguru. Baina zuk behintzat...

Begoñak eta Carlosek elkarri begiratzen diote une batez.

FERNANDO:

Utziko didazu galdera bat egiten? Zure lagunaren bihotza bigundu eta gero, Tolaretxipiren txanda izango da, ezta? Trebea zara. Aitortu beharra daukat trebea zarela.

CARLOS:

Ez dut zurekin hitz egin nahi. (*Begoñari*) Zer diozu, Begoña?

BEGOÑA:

Pentsatzen ari naiz.

FERNANDO:

Ba, begira, nik hitz egin nahi dut ba zurekin. Egiten ari zarena txantaje emozional hutsa da. Begoña ezaguna duzunez, eta noizbait sartu egin diozunez, orain samurtu egin nahi duzu.

BEGOÑA:

Aizu, guapito, niri ez dit inortxok ere txantajerik egiten. Nik nahi dudana egiten dut, eta gu biok harremanik izan bagenuen, zuri bost.

FERNANDO:

Barkatuko didazu-e.

BEGOÑA:

Carlos, egia esatea nahi baduzu, niri ez zait buruan sartzen sexu aldaketarena, baina egia balitz eta zure kontratuaren ardura nire esku balego, nik ez nizuke kontraturik egingo.

CARLOS:

Oso ondo. Nik espero nuen zuk... Baina ez, ez, normala da. Ulertzen dut.

BEGOÑA:

Sentitzen dut.

Begoñaren mugikorrak jotzen du.

BEGOÑA:

Barkatu. *(Nor den begiratu eta telefonoa konektatzen du)* Zer gertatu da?

CARLOS:

Alferrik da zuei galdetzea, noski.

ENRIQUE:

Ez daukagu beste aukerarik. Inork ez luke kontratatuko zure modukorik.

FERNANDO:

Ba, nik kontratua egingo nizuke, besterik ez bada ikusteko guapa uzten zaituzten.

CARLOS:

Inozoa zara gero.

BEGOÑA: *(Telefonoz)*

Baina, nola izan da? Jainko maitea... Bai, bai, oraintxe bertan joango naiz. Agur. *(Eseki egiten du)*

FERNANDO:

Antza denez, zure ohiak alde egin behar du.

BEGOÑA:
Nire ama hil egin da.

CARLOS:
Zer diozu?

BEGOÑA:
Nire ama hil egin dela.

ENRIQUE:
Jode.

BEGOÑA:
Zainketa intentsiboetan zeukaten, bihotzekoak jota.

ENRIQUE:
Sentitzen dut.

CARLOS:
Baina lehen deitu dizutenean...

BEGOÑA:
Dirudienez, telefonoz ari ginela krisialdian erori da eta nire ahizpak ez zekien ezer oraindik.

CARLOS (*Besarkatuz*):
Begoña...

BEGOÑA:
Bueno, joan egin behar dut.

CARLOS:
Nahi duzu laguntzea? Zurekin joango naiz.

BEGOÑA:
Ez da beharrezkoa. Hor daukat autoa. Deitu didatenean joan behar nuen.

CARLOS (*Geldiaraziz*):
Bai zera. Ez zinen garaiz iritsiko.

BEGOÑA:
Baina ez naiz joan. Hemen geratu naiz. Kaka zaharra.

CARLOS:
Hara, Begoña, hobe gidatzen ez baduzu. Niri ez zait inporta.

BEGOÑA:
Eskerrik asko.

Begoñak eta Carlosek gauzak hartzen dituzte.

FERNANDO:
Begoña, sentitzen dut.

BEGOÑA:
Zuk?

FERNANDO:
Bai, nik.

BEGOÑA:
Zuk gauza bakarra daukazu buruan: "Bi gutxiago".

FERNANDO:
Egia da, hain naiz kabroia.

ENRIQUE:
Seguru ulertuko dutela joan behar izatea.

FERNANDO:
Lehen esan dutenez, alde egiten duena, arrazoia edozein izanda ere, kanpoan geratuko da.

CARLOS:
Nola izan zaitezke hain...

FERNANDO:
Hori esan digute.

ENRIQUE:
Dena dela, ez zara zu erabaki behar duena.

FERNANDO:
Ez, baina hori esan dute.

BEGOÑA:
Kontratatuko zaituzte, seguru. Ez da erraza zu bezalako putakume bat topatzea.

FERNANDO:
Aizu, nik ez dut hil zure ama.

Begoña begira geratzen zaio, haserre.

Zer? Egia da. Ez da nire errua.

Begoñak Fernandori begiratzen dio. Luze. Carlos Begoñarengana hurbiltzen da.

CARLOS:
Goazen, Begoña...

Begoñak geldirik jarraitzen du, Fernandori begira.

BEGOÑA:
Ez. Geratu egingo naiz.

CARLOS:
Zer?

BEGOÑA:
Geratu egingo naizela.

CARLOS:
Begoña...

BEGOÑA:
Hilda dago. Berdin dio. Ama ez da berpiztuko ni ziztu bizian noalako ospitalera.

CARLOS:
Nola esan dezakezu hori?

BEGOÑA:
Geratu egin behar dut.

CARLOS:
Ez dut ezer ulertzen.

BEGOÑA:
Nire ama ere hemen geratuko zen.

FERNANDO:
Jode, a ze familia!

BEGOÑA:
Begira, esantzazu nahi duzuna. Ez duzu lortuko ni urduritzea.

CARLOS:
Hau izugarria da!

FERNANDO:
Izugarria da zuk oraindik hemen jarraitzea. Ez al zenuen alde egin behar?

Carlos begira geratzen zaio.

CARLOS (*Nazka-nazka eginda*):
Zuek jota zaudete. Ez dakit nola agoantatu dudan hain luze hautaketa nazkagarri hau. (*Begoñari*) Lotsagarria da.

Carlos atea zabaldu eta joan egiten da.

ENRIQUE: Alde egin du.

BEGOÑA (*Kamerei*):
Bueno, zer? Jolasean jarraituko dugu, ala zer?

ENRIQUE:
Esan digute alde egiten duena prozesutik kanpo geratuko dela. Baina arau horrek ez zuen kontuan hartzen halako zerbait gerta zitekeenik. Seguru nago pertsonaleko departamentuak ulertuko duela joan behar baduzu eta ez duela aintzakotzat hartuko erabakitzeko orduan.

Fernandok eta Begoñak elkarri begiratzen diote.

FERNANDO:
Nik arrazoia nuen. Zu zara satorra.

ENRIQUE:
Ni?

FERNANDO:
Zu.

ENRIQUE:
Satorra?

FERNANDO:
Satorra.

ENRIQUE (*Erlojua begiratzen du*):
Bai, arrazoi duzu, ni naiz satorra.

BEGOÑA:
Zer?

ENRIQUE:
Anton Arana izena dut. Eta psikologoa naiz enpresa honetan.

FERNANDO:
Banekien!

ENRIQUE:
Bizpahiru proba gehiago genituen, baina egoera ikusita, hobe gauzak arintzea.

BEGOÑA:
Zu zara satorra?

FERNANDO:

(*Begoña imitatuz*) “Zu zara satorra?” Garbi zegoen, hasiera-hasieratik. Anton Arana, zure interpretazioa, aparta, aktore bikaina zara. (*Musu ematen dio bekokian*)

ENRIQUE:

Carlos Telleria prozesutik kanpo dago. Zuek biok bakarrik geratzen zarete.

BEGOÑA:

Eta orain, zer egingo duzue? Nola erabakiko duzue?

ENRIQUE:

Azken proba egingo dugu. Nolanahi ere, Iribar andrea, berriz ere esango dizut. Ulertzen dugu joan behar izatea. Zuek zarete azken bi hautagaiak. Beste egun baterako utz dezakegu. (*Fernandori begiratzen dio*)

FERNANDO:

Nik ez daukat eragozpenik beste egun batean bueltatzeko, (*etenaldia*) baina berak hemen geratzea erabaki du.

BEGOÑA:

Hobe lehenbailehen bukatzea.

ENRIQUE:

Seguru?

BEGOÑA:

Bai.

ENRIQUE:

Nahi duzun bezala. Hona azken proba. Joko bat da.

Enriquek bi kartazal ateratzen ditu jakaren poltsikotik.

Zuetako bakoitzak ezkutuko helburua du. Bere helburua aurrena betetzen duena hemen geratuko da, eta besteak alde egin beharko du. Kartazal bana emango dizuet.

Kartazalak ematen dizkie: berdea, Begoñari; gorria, Fernandori.

Barruan txartel bat dago batak bestearengandik zer lortu behar duen esaten duena. Zuetako batek helburua lortutakoan, txartela erakutsiko dio besteari froga gisa. Hori da proba amaitzeko modu bat. Baina badago beste bat. Zuetako batek bestearen helburuari igarri egiten badio, bera izango da garailea. Argi dago?

FERNANDO:

Ea ondo ulertu dudan. Hemen jartzen duena lortzen badut, irabazi egingo dut; baina berak nire helburua igartzen badu, galdu egingo dut.

ENRIQUE:

Hori da. Diaz jauna, Iribar andrea. (*Bostekoa ematen die biei. Ate aldera hurbildu eta zabaldu egiten du*) Zorte on.

Enrique aretotik irteten da. Begoñak eta Fernandok beren kartazalak irakurtzen dituzte.

FERNANDO:

Ederra daukagu.

BEGOÑA:

Bai.

FERNANDO:

Zurea nirea bezain zaila bada, gau osoa eman dezakegu hemen.

BEGOÑA:

Nik ez daukat gau osoa.

FERNANDO:

Ez, noski. Gustura ikusiko nuke nola kontatzen diozun familiari hemen geratu zarela kamera ezkutuaren bila jolasean eta horregatik ez zarela garaiz iritsi ospitalera.

BEGOÑA:

Nik familiari ez diot inolako azalpenik eman behar.

FERNANDO:

Ederki. Ez da nire kontua.

BEGOÑA:

Horixe bera.

FERNANDO:

Ba, hobe dugu lanari ekitea. Lortu behar dugu besteak zerbait egitea, baina ezin gara zuzenean joan, hamaika buelta eman behar ditugu; ze, harrapatuz gero, gureak egin du. Ondo pentsatua dago. Funtsean, salmenta teknikak dira.

BEGOÑA:

A, bai?

FERNANDO:

Bai, saltzea hori da. Ni aiton-amonen txangoekin hasi nintzen. Autobus batean sartzen genituen, auskalo ze gaztelu ikustera joateko. Baina benetako helburua bideo zintak birbobinatzeko makinak saltzea zen. Ardo merkearekin tripabarrua ondo bete, eta zopa-zopa eginda zeudenean, gela batean itxita uzten genituen guk nahi genuena erosi arte. Ostia... gogotik egiten genuen barre. Behin, bideo zintak birbobinatzeko hamabi makina saldu nituen hamabost laguneko talde batean. Hamabi. (*Begoñari begietara begiratzen dio*) Eta inork ez zeukan bideorik etxean.

BEGOÑA:
Ezkondua zara?

FERNANDO:
Ez.

BEGOÑA:
Eta hori?

FERNANDO:
Bokazioa. Eta zu?

BEGOÑA:
Ni ere ez. Baina badakit zer den bikotean bizitzea.

FERNANDO:
A, primeran. Pozten naiz.

BEGOÑA:
Seme-alabarik?

FERNANDO:
Ez... nik dakidala.

BEGOÑA:
Zer esan nahi duzu horrekin?

FERNANDO:
Arrazoi duzu. Erantzun txatxua izan da. Gizonek jakingo ez bagenu bezala seme-alabarik ba ote dugun. Nik babes neurriak hartzen ditut beti, baina inoiz haurdun utzi izan banu baten bat, berak isilik gordeko zuen? Baita zera ere. Prediktorra bero-bero eskuan deituko zidan.

BEGOÑA:
Baduzu lagunik?

FERNANDO:
Izango ez ditut ba.

BEGOÑA:
Nongoak dira?

FERNANDO:
Ba, hangoak eta hemengoak.

BEGOÑA:
Baina benetako lagunak dira?

FERNANDO:
Ez zera, panpina puzgarriak.

BEGOÑA:
Zuk, benetan, zer duzu gustuko?

FERNANDO:
Nire lana.

BEGOÑA:
Badakizu zer uste dudan? Hemen ez gaituztela hartuko. Ez zu, ez ni.

FERNANDO:
Zergatik?

BEGOÑA:
Ez dakit. Sentsazioa daukat jolasean ari direla gurekin.

FERNANDO:
Aspalditik. Baina psikologoak halakoak dira. Harritzekoa aulkien jokoa egiten ez jartzea, edo animalien hotsak imitatzen.

BEGOÑA:
Nik seigarren zentzumen bat daukat. Engainatu nahi nautenean, alarma pizten zait, eta hemen aspaldi hasi zait joka. Hau ez da langileak hautatzea. Hau beste gauza bat da.

FERNANDO:
Zer nahi duzu, hau dena iruzurra dela sinistarazi? Hori da lortu behar duzuna? Ba, ederra daukazu. Nik miresten dut zure jarrera. Zure ama hilda dago, eta horretan ez duzu zer eginik. Hemen, berriz, urrezko aukera daukazu punta-puntako lanpostua lortzeko. Ez duzu alde egingo helmuga hain gertu izanda hildako amatxo ziztrin batengatik. Bai. Nik miresten ditut pertsona praktikoak, eta zu halakoa zara. Gustuko zaitut. Benetan.

BEGOÑA:
Zuk norbait maite izan duzu inoiz?

FERNANDO:
Emakume bat esan nahi duzu?

BEGOÑA:
Bai, emakume bat.

FERNANDO:
Behin eskatu nion bati nirekin ezkontzeko.

BEGOÑA:
Eta ezezkoa eman zizun.

FERNANDO:
Baiezkoa eman zidan. Bestela, ez nion eskatuko.

BEGOÑA:
Eta gero utzi egin zenuen, ezta?

FERNANDO:
Hurrengo astean.

BEGOÑA:
Ez da egia.

FERNANDO:
A, ez?

BEGOÑA:
Ez. Esan dizut seigarren zentzumen bat daukadala.

FERNANDO:
Ba, neska, beste bostek honek bezala funtzionatzen badizute, jai daukazu.

BEGOÑA:
Zergatik utzi zintuen?

FERNANDO:
Nik utzi nuen.

BEGOÑA:
A, bai, egia da. Barkatu.

FERNANDO:
Ez dakit non arraio amaitu nahi duzun galderatxo horiekin. Baina uste dut su artifzialak botatzen ari zarela. Eta komeni zaizun lekuan naukazunean, orduan eraso egingo didazu ustekabeen. Ba, ez nauzu harrapatuko, polita. Beraz, denbora galdu nahi baduzu, zeuk ikusi. Baina estrategia horrekin jarraituz gero, ez zara garaiz iritsiko krematoriora.

Begoñak erlojua begiratzan du.

Deitu, deitu nahi baduzu.

BEGOÑA:
Ez, ez dut deitu nahi.

FERNANDO:
Ba, ahizpak berehala deituko dizu. Zer kontatu behar diozu?

BEGOÑA (*Mugikorra deskonektatzen du*):
Ba, begira, orain ezer ez.

FERNANDO (*Desengainaturik*)
Ooo, Begoña. Lan gutxi eman didazu.

BEGOÑA:
Zer gertatzen da?

FERNANDO:
Eta esango banizu nire helburua zuk mugikorra itzaltzea zela? (*Fernandok kartazala erakusten dio*)

BEGOÑA:
Egia da hori? (*Kartazala hartzera doa, baina Fernandok ez dio ematen*)

FERNANDO:
Ez. Baina sinistu egin duzu, e?

BEGOÑA:
Oso... barregarria.

FERNANDO:
Barkatu, ezidazu hau kontuan hartu.

BEGOÑA:
Badakizu zergatik geratu naizen hemen? Ez zaitut batere gogoko eta poz izugarria hartuko nuke zu izorratzea lortuko banu.

FERNANDO:
Oso ondo, laztana. Zure ama harro egongo da zutaz.

BEGOÑA:
Umezurtza zara, ezta?

FERNANDO:
Umezurtza?

BEGOÑA:
Ama bazenu, ez zenuke barrerik egingo.

FERNANDO:
Ama eta aita dauzkat.

BEGOÑA:
Ba, espero dut zure premiarik ez izatea inoiz.

FERNANDO:
Gai hori ezta ukitu ere. Bestela ematen badu ere, niretzat gurasoak beste edozeren gainera daude. Gurasoek hainbeste eman didate, gogotik saiatuta ere ez dut lortuko zor diedan guztiaren zati txiki bat bueltatzea eta haiek bezain eskuzabal izatea. Badakizu zergatik ez dudan seme-alabarik? Uste dudalako ez naizela gai izango gurasoek ni maite izan nauten adina maitatzeko.

Zu neska pijoa zara. Ni ez, ni langile auzo batean hazi nintzen. Aita Renfeko begiratzailera izan zen bere bizitza putxa osoan. Erlojuak baino ordu gehiago egiten zituen lanean. Gau batzuetan ez zen etortzen lotara, baina itzultzean, opari bat ekartzen zidan beti. Eta beti diodanean beti da. Gauza txikiak. Goxokiren bat... Baina detaile harekin adierazi nahi zidan gogoan edukitzen ninduela egun osoan. Batzuetan, astebete ematen zuen etxetik kanpo, eta orduan amak, aita bueltatu bezperan, babak erosten zituen, eta aletu egiten genituen bion artean, hori zelako aitak gehien maite zuen platera. Zuk ez dakizu zertaz ari naizen, ezta? Zure etxean ez zenuten babarik jaten, noski. Ba, nirean bai. Eta niretzat, gauza handia zen amari laguntzea aitarentzat babak prestatzen. Gaur egun ere, noizean behin, prestatzen dizkiogu. Eta aitak besotik heldu eta esaten dit: "Ze, lagunduko hion amari babak aletzen, ezta?". Eta, berrogei urte ditudan arren, kaskarrekoa ematen dit, sei urte nituenean bezala. Zuk ezin duzu ulertu, baina aitari begiak ikusi eta badakit harro dagoela nitaz. Eta ama ere berdin.

Baina zuk ez duzu putxa ideiarik zertaz ari naizen. Zuk telefonoa deskonektatzen duzu. Ala, hil dadila mundu guztia, ni oso okupatuta nago une honetan. Ez zara inoiz sartu gurasoen ohean beldurrak jota? Zer uste duzu, zure ama ez zegoela beldurtuta gaur? Badakizu zer den garrantzitsuena bizitza honetan? Badakizu zergatik lan egiten dudan, zergatik nahi dudan gora egin lanbidean? Ba, esan egingo dizut, ulertuko ez duzun arren. Aukera eman nahi diet gurasoei nitaz harro egoteko beti. Jakin dezatela arrakasta lortu dudala. Eta edozertarako prest nago hori lortzearen, baita apezpikuaren kapela janzteko ere.

Eta zuk ziniko deitzen didazu niri? Zer frogatu nahi duzu zure jarrerarekin? Indartsua zarela? Lanpostu hau inportantea dela zuretzat? Ba, gauza bakarra frogatzen duzu: koldarra zarela, ez daukazula adorerik bizitzari aurre egiteko, baina benetako bizitzari.

Lehen galdetu didazu norbait maite izan dudan inoiz. Entzun ondo, baduzu zer ikasirik eta. Iritsiko da eguna ipurdia erori eta titiak zimelduko zaizkizuna, galtzerdi baten antzera. Iritsiko da eguna zure karrera distiratsutik pentsio plan ziztrin bat baino geratuko ez zaizuna. Iritsiko da eguna gauza on guztiak ahaztuta izango dituzuna. Ba, egun hori iritsi da nire gurasoentzat. Eta ni haiekin nago, eta haiekin egongo naiz beti, bukaeraraino, eta behar den guztia egingo dut pentsa dezaten bizitzea merezi izan duela. Eta zuk, zer izango duzu? Ezer ez. Atzera begiratu eta zer ikusiko duzu? Kaka pila bat, besterik ez.

BEGOÑA:

(Negarrez ari da benetan.)

FERNANDO:

Ezin errazago neukan.

Fernandok kartazala hartu, txartela atera eta Begoñaren aurrean jartzen du.

Negarra eragin behar nizun.

Begoña kanpora irteten da. Fernando bakarrik geratzen da. Ez daki oso ondo nora begiratu.

(Begoñari, atetik kanpora) Bego, eta jakin dezazun: nire ama aspaldian hil zen eta hamabost urte dira aitak eta biok elkarri hitzik egiten ez diogula.

Bukatu da, ezta? Eta orain, zer? Irten egingo naiz, edo zain gelditu? Ni arauak errespetatzearen aldekoa naiz, esan duzue irtenez gero kanpoan geratuko ginela. Ba, ni hemen geratuko naiz.

Fernandok Begoñaren kartazal barruan begiratzen du.

Begoña, ea ba. Zuri dago.

Fernando ate aldera joan eta zabaltzen saiatzen da, ez du lortzen.

Aizue, hau itxita dago. Zer nahi duzue, ostikoka zabaltzea?

Fernandok telefonoa atera eta deia egiten du.

¿Dekia? (...) Mesedez, jarri pertsonaleko departamentuarekin. (...) Ez dago inor? Zer esan nahi du horrek? Ni pertsonaleko departamentuan nago. (...) Bai, hemen, eraikinean. (...) Elkarrizketa egitera etorrira. Elkarrizketa... (...) Ez ni berotu. Baten bat egongo da. Saiatu beste luzapen batean. (...) Ea ulertzen didazun: ni hemen barruan nago ezin dudalako atea ireki. Anton Arana izeneko batekin nengoen, pertsonaleko departamentuaren psikologoa da. (...) Ez dagoela inor izen horrekin? (...) Igo hona eta zabaldu atea. Hamaikagarren solairuko batzar gela batean nago. (...) Ez dagoela batzar gelarik hamaikagarren solairuan? Begira, nazkatzen hasita nago kontu honekin. (...) Ez, ez nabil txantxetan. (...) Ez naiz zure koinatu Mariano. (...) Begira, kaka egitera, hi joango haiz.

Telefonoa esekitzen diote.

Begoña, Enrique eta Carlos sartzen dira, irribarre zabal eta adeitsuekin denak.

BEGOÑA:

Kaixo, Diaz jauna. Edurne Abasolo naiz, departamentuko psikologoa.

FERNANDO:

Zer?

BEGOÑA:

Elkarrizketa amaitu da. Nire lankideak aurkeztuko dizkizut. Anton Arana, ezagutzen duzu. Eta Miguel Iturri.

CARLOS:

Aupa.

FERNANDO:
Miguel?

BEGOÑA:
Departamentuko psikologoak da bera ere.

CARLOS:
Eseri, eseri, nahi baduzu.

BEGOÑA:
Ulergarria da harritura egotea. Egia esan, sistema hau ez da ohikoa.

FERNANDO:
Oso ona.

BEGOÑA:
Bai, ezta?

FERNANDO:
Hasieran, pentsatu dut, baina gero... Bueno, gero zalantza egin dut eta ez... Hau pixka bat gehiago luzatu eta harrapatuta zeundeten.

BEGOÑA:
Bai, jakina. Egia esan, denbora gutxi daramagu proba mota hauek egiten. Isaias Gronholm-ek garatutako testa da. Psikologo suediarra da, eta gure enpresako departamentu burua Estokolmon. Metodo egokia da neurtzeko Gronholmek "adimen sortzailea" deitzen duena.

FERNANDO (*Zur eta lur*):
A.

BEGOÑA:
Ez kezkatu zeintzuk ginen asmatu ez duzulako. Ez genuen hori ebaluatu nahi.

FERNANDO:
Oso ona sexu aldaketarena. Sinistu egin dut.

CARLOS:
Eskerrik asko.

FERNANDO:
Eta ama hildakoarena... Orduan, zer, lanpostua nirea da, ezta?

BEGOÑA:
Ez. Lanpostua ez da zurea.

ENRIQUE:
Ez, ez, ez. Hutsegite larria litzateke zu kontratatzea.

BEGOÑA:

Sentitzen dut. Baina hobe duzu orain jakitea, horrela ez duzu burua alferrik nekatuko itxaropen faltsuekin.

CARLOS:

Honek ez dauka burua nekatzeko ohiturarik. (*Hirurak barrez*)

FERNANDO:

Baina...

BEGOÑA:

Begira, jarri dizkizugun probak zure profilaren araberakoak ziren. (*Begoñak karpetan dituen paperak kontsultatzen ditu*) Adibidez, bagenekien zure ama hilda dagoela eta hil ondoren urtebete eman zenuela lanik egin gabe.

CARLOS:

Bajan eman zenituen, depresioak jota, hamar hilabete.

BEGOÑA:

Zure enpresak ordaindu behar izan zuen zure bajagatik hirurogeita bost mila euro, oker ez banago.

ENRIQUE:

Ezkonduta egon zinen eta emazteak salatu egin zintuen. Aldentzeko agindua jarri zizuten. Hala da, ezta?

FERNANDO:

Tira, bai, baina epaiketan...

CARLOS:

Epaiketan... Gezurretan eman duzu saio osoa.

FERNANDO:

Aizue... Nire emaztea...

CARLOS:

Et, et, et. Gezur gehiago ez, faborez. Hitz egin dugu zure emazte ohiarekin.

FERNANDO:

Zer?

ENRIQUE:

Imajinatuko duzu, noski, zer kontatu digun.

FERNANDO:

Ez dakit zer kontatu dizuen. Baina...

BEGOÑA:

Kapelen jokoan ez duzu aukeratzetik izan. Apezpikuaren mitra utzi dizugu, nahita. Hamabi urterekin seminarioan sartu zinen, eta badakigu zer gertatu zen han.

FERNANDO:

Han ez zen ezer gertatu.

BEG./ENR./CAR.

Ui...

BEGOÑA:

Eta, gainera, badakigu anaia homosexuala daukazula eta ez duzula inolako harremanik harekin.

FERNANDO:

Marikoi horrekin ere hitz egin duzue?

CARLOS:

Jakina.

FERNANDO:

Ez dut hitz egiten anaiarekin, baina ez homosexuala delako.

BEGOÑA:

Probetan ez duzu enpatia izpirik ere erakutsi.

FERNANDO:

Enpatia?

BEGOÑA:

Badirudi kontu pertsonalek ez dutela inolako eraginik zuegan, baina hain da erraza zuri asmoa igartzea! Barreari eutsi behar izan diogu pare bat aldiz. Agresibitatea, batzuetan, zure buruaren kontra jar daiteke. Batez ere zure egoeran. Eta badakizu zergatik? Zure agresibitatea inpostatua delako. Ez da benetakoa. Itxurakeria hutsa. Zer gerta daiteke zu bezalako pertsona batekin lanean liskarren bat egonez gero?

ENRIQUE:

Liskarra are gehiago kakaztuko lukeela.

CARLOS:

Begira ze aurpegi gelditu zaizun benetan estutu zaitugunean.

ENRIQUE:

Ez duzu asko balio. Lehen asaltoan, KO.

BEGOÑA:

Horra hor argibide guztiak. Eta orain, goazen hemendik. Behingoagatik garaiz iritsiko gara haurrak oheratzeko. (*Musu ematen dio Enriqueri. Senar-emazteak dira.*)

FERNANDO:

Entzun...

BEGOÑA:

Bai?

FERNANDO:

Ni... Ez, ezer ez.

BEGOÑA:

Zer uste zenuen, engainatu egingo gintuzula? Begira, zure bizitza negargarria da, profesional gisa eta pertsona gisa. Eta barkatu esatea, baina konbentzituta nago berdin-berdin jarraituko duzula.

Fernando haiei begira, isilik.

Hemen ez dugu behar putakume plantako gizon zintzo bat, zintzo plantako putakumeak baino. Arratsalde on.

CARLOS:

Arratsalde on-on-on...

ENRIQUE:

Mentolin bat?

FERNANDO:

Ez, eskerrik asko.

ENRIQUE:

Arratsalde on.

Carlos, Enrique eta Begoña kanpora irteten dira. Zabalik uzten dute atea.

FERNANDO:

Luis, bidali dituk katalanak popatik hartzera? (...) Bai? (...) Ez ezergatik ez.

ILUNA